HIZKUNTZ NORMALIZAZIOA (apunteak)

Termino nahiko berria izan arren, inolako zalantzarik gabe gurean gehien erabiltzen den kontzeptu soziolinguistikoa da, beraren erabilera gehiegizko ere izanik, duen benetako esanahia galtzera iritsi delarik batzutan. Sarri, badirudi termino hau nahi izango litzakeen baino errealitate soziolinguistiko negatiboagoa ezkutatzeko, maskaratzeko erabiltzen dela (ikus testuetan Iñaki Larrañagari egindako elkarrizketa).

Askotan kontzeptu nahasketa izaten da. Normatibizazoa, estandarizazioa, hizkuntz plangintza, hizkuntz politika kontzeptuak normalizazio kontzeptuarekin nahasten dira, kontzeptu guzti horiek normalizazio prozesuaren arlo edo atalak baino ez direnean.

Autore gehienek normalizazioaren alde bikoitza aipatzen dute:

- alde linguistikoa: ortografia, lexikoa, gramatika eta abar erregulatzea, finkatzea.

- alde soziala: hizkuntza eta kultura bat besteen parean jartzea§, hau da, gizarte funtzio guztietara zabaltzea, esparru formal eta ez formal guztiak hartuz.

MOLLAk proposatzen du alde linguistikoari dagokiona "normatibizazioa" deitzea. Eta alde sozialari dagokiona, "normalizazioa".

Hizkuntz normalizazioa prozesu historiko soziokulturala da, beronetan hizkuntzak normatibizatu (ortografia, lexikoa eta gramatika finkatu) eta gizarte funtzio guztietara iristea lortzen duelarik, baita ordura arte sozialki nagusia zen hizkuntzarentzat erreserbatutakoetara ere. Esparru formal eta ez formal guztiak hartzen dituenean dago hizkuntza erabat normalizatua.

Hitzak berak adierazten duenez, normalizazioaren helburua hizkuntza minorizatu baten erabilera "normal" bihurtzea da, gizarte bizitzako esparru eta funtzio guztietan normalki erabiltzea: etxean, kalean, komunikabideetan, lanean, irakaskuntzan, erakunde publiko eta politikoetan, edozeinekin, edozein motatako giza-harremanetan, nonahi eta noiznahi,...

Prozesu hau soziala da (hizkuntz normalizazioa ez da bakarrik gertatzen, ez da berezko fenomenoa, erabaki sozial, kultural eta politiko garrantzitsua baizik, hizkuntz komunitate baten kideek edo kide horien parte adierazgarri batek kontzienteki hartua) eta historikoa (garai batean hasi eta beste baten amaitzen dena). Prozesu luzea denez, ez da uniformea, gorabeherak ezagutuko ditu, baina erregularra da (badira etapa eta ezaugarri jakin batzuk aztertu diren kasu guztietan gertatzen direnak).

Esan bezala, normalizazioaz hitz egiten dugunean, "gatazka linguistikoa" egoera anormaltzat hartuz, egoera hori gainditu beharraz ari gara. Normalizazioa, zentzu horretan, anormalitatetik normalitatera doan prozesua izango litzateke (normalitate hori beste komunitate linguistiko batzurekin konparatuz deskribatuko dugularik). Hizkuntza bat egoera anormalean egongo da bere transmisioa arriskuan dagoenean, bere hizkuntz komunitatea desegituratuta dagoenean eta bere hiztunek halabeharrez elebidun izan behar dutenean. Hizkuntza egoera normalera pasatuko da bere transmisio naturala eta kulturala ziurtatzen dituenean, bere hizkuntz komunitatea egituratzen denean eta bere hiztunak elebakar izan daitezkeenean. Azken kasu honetan, hizkuntzaren erreprodukzio-mekanismo guztiek topera funtzionatzen dute eta hizkuntzaren erabilera sozialak posible egiten du umeek hizkuntzaren ikaskuntza osoa egitea.

Normalizazioak hizkuntza minorizatua edo normalizatu nahi den hizkuntza ordurarte hizkuntza nagusia zenak okupatzen zituen erabilera-eremuetan sartzea dakar, ezken hau desplazatuz. Beste modu batera esanda, normalizazioak indarrean zeuden erabilera-arauak aldatzea dakar, hizkuntza biren arteko harremanak aldatuz.

Normalizazioak ordurarte hizkuntza biren artean izandako harremanak aldatzea dakarrenez, arazoak sortzen dira. Eta eskubideetaz eztabaidatzen da. Batzuk eskubide indibidualak aldarrikatuko dituzte soilik. Beste batzuk, eskubide kolektiboak ere errespetatzea eskatuko dute.

Hizkuntz eskubide indibiduala: ezin da inor diskriminatu bere hizkuntzagatik.

Hizkuntz eskubide kolektiboa: edozein talde linguistikok, talde moduan, bere bizitza publiko eta ofiziala berea den hizkuntzan antolatzeko duen eskubidea. Oinarrian dagoen ideia: hizkuntz komunitate guztiak berdinak dira.

Gure artean hizkuntz eskubideak aipatzen direnean, sarritan eskubide pertsonalak bakarrik aipatzen dira eta oso gutxitan hizkuntz komunitateari dagozkionak. Horrela gertatzen da gaur erdara erabiltzeko eskubidea errebindikatzen dutenekin.

EUSKARAREN BERRESKURAPENAREN ALDEKO EKIMENAK (apunteak)

Azken urte hauetan, 1960 urteaz geroztik, hainbat ekimen burutu da euskararen berreskurapenaren alde.

Lehenik, kronologiari jarraituz, herri ekimenetik sortutako ikastola eta euskalduntze-alfabetatzeak aipatu behar, eta horiekin bateratsu herri-irratiak, aldizkariak, liburugintza eta abestigintza.

Geroago, herri ekimenetik eta beste erakundeetatik ere egiten dira ahalegin berriak, kasu batzuetan lehenengoak hedatuz (irakaskuntzan eta helduen euskalduntze alfabetatzean alde batetik, eta irratigintzan, liburugintzan eta aldizkarigintzan, bestetik) eta beste kasu batzuetan esparru berrietan eraginez (irakasleen eta administrazioko langileen euskalduntzea, euskarazko telebista katea, euskararen egoerari buruzko ikerketak).

Azken urte hauetan egindakoen artean ezin aipatu gabe utzi Euskaldunon Egunkaria, UEMAko Mankomunitatea eta hainbat udalerritan sortu diren Euskara Taldeak. Joan den urtean, 1997an Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua sortzen da.

HERRIETAKO EUSKARA-ELKARTEAK

Espazio sinbolikoaren osaketarako, eta beraz, hizkuntz komunitatearen konpaktaziorako tresna.

80. hamarkadan hasten den mugimendu hau garai bAtean ikastolena eta gau-eskolena bezalako mugimenduarekin pareka daiteke.

Hiru ezaugarri nagusi dituzte:

- HERRI MAILAKO ANTOLAKUNTZA: Herri mailako kezkatik abiatuta planifikatzen dituzte lanak eta ekintzak.
- IZAERA ZABALA : esijentzia ideologiko bakarra euskaltzaletasuna da.
- ERABILPENA BULTZATZEA HELBURU: euskararen erabilpenari esparru berriak zabaltzea, euskaldunok euskaraz ihardun ahal izateko aukerak areagotzea.

Gaur egun 30ren bat elkarte dira martxan Gipuzkoan, Bizkaian, Araban eta Nafarroan. Ez ditugu kontatzen Iparraldekoak ezaugarri ezberdinak dituztelako.

Mugimendu honen aintzaindaria AED (Arrasate Euskaldundu Dezagun) da.

UDAL EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA (UEMA)

Herri euskaldunenetan ere, arazoak dituzte bizitza euskara hutsez egiteko. Horregatik udaleri hauen eskubideak bermatzeko elkarte hau sortu zuten 1988an Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako 20 herri euskaldunek. Eta 1992an eratu zen ofizialki. Gaur egun UEMAk 31 udalerri biltzen ditu (50.000 biztanle gutxi gorabehera). Iparraldean ere antzeko esperientzia bat martxan jarri da.

UEMAn parte hartzeko baldintza: populazioaren %80 euskalduna izatea.

UEMAren helburu nagusia: mankomunitateko partaide diren Udaletan sozialki euskaraz funtzionatzea, hau da, gaztelerak udal euskaldun hauetan betetzen dituen funtzio guztiak euskararentzat bereganatzea. Mankomunitatea euskalduntze prozesu hori zuzentzeko, garatzeko eta babesteko sortua da.

Udalerri euskaldunetan euskara izan da eta da etxeetan jaso eta transmititzen den berba; hala ere, arlo formaleko zereginetarako (eskola, administrazioa, zerbitzu sozialak, komunikabideak, lan mundua,...) lekurik egin ez zaionez, etxean, intimitatean ere, erdara sartu eta sartzen ari da indar handiz. Hau dela eta, mugimendu sozial honen helburu nagusia, erderak betetzen dituen funtzio guztiak euskararako bereganatzea izango da, hots, normaltasun osoz bizi ahal izateko gaztelera eta frantsesera beharrezkoak ez izatea. Egungo legeriak euskal herritarrei euskaraz bizitzeko eskubidea aitortzen digu, beraz, manokomunitatearen zeregina aitorpen hori gauzatu dadin behar diren neurri guztiak hartzea litzateke. UEMAren zeregina litzateke beraz: Udalerri Euskaldunetako bizitza soziala, egunerokoa, herriko sektore guztietab, etxean, kalean, administrazioan, komertzioan, ekonomia arloan, zerbitzuetan, lagunartean.... normaltasun osoz euskaraz burutu ahal izateko bideak zabaltzea.

Prozesu horretan ez da inor baztertu nahi. Kontuan hartzen da euskarak herritar guztien elementu integratzailea izan behar duela; horregatik, xede horiek betetzeko epe batzuk jarri dira, herritar guztientzat prozesua leuna izan dadin.

Dagoeneko 29 udalerrik osatzen dute Mankomunitatea:

ARABAn: Aramaio; BIZKAIAn: Artea, Aulesti, Bermeo, Dima, Etxebarria, Gatika, Gamiz-Fika, Gizaburuaga, Munitibar, Zeanuri; GIPUZKOAn: Aizarnazabal, Altzaga, Altzo, Baliarrain, Beizama, Elduain, Gaintza, Ikaztegieta, Itsasondo, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Zaldibia; NAFARROAn: Arantza, Goizueta, Leitza, Zubieta.



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA

ZER DA KONTSEILUA?

Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua euskalgintzaren muina da, bertara elkartu baitira euskarak garapen osoa izatea helburu duten euskararen gizarte erakundeak.

Euskararen normalizazioak behar-beharrezko dituen aniztasuna eta batasuna dira *Kontseilua*ren indarrak. Jatorri, iritzi eta lan-eremu desberdinetako erakundeek islatzen dute euskalgintzaren eta *Kontseilua*ren pluraltasuna; halaber, batera aritzeko urrats historikoa egin dute *Kontseilua*n elkartzean, euskal gizarte anitz eta osoari ekarpen garrantzitsuak egiteko.

HISTORIA APUR BAT

1995. urtean, *Egunkaria Sortzen* elkarteak egindako bileran, bilatu behar dira mugimendu honen erroak. Euskararen egoeraz kezkaturik, euskalgintzako hainbat pertsonak foro berriak sortu beharra aipatu zuten orduan, iritziak elkarri azaldu eta gogoeta egiteko topaguneak atontzeko. Hainbat bilera eta mintegi egin ziren ondoren, ordura arte egindako diagnostikoa berretsi zutenak: euskalgintzaren indarrak kohesionatzeaz eta euskararen normalizazioan jauzi kualitatiboa eragiteaz erabateko adostasuna azaldu zen. Prozesu honen haritik, 1997. urteko martxoan *'Euskararen Unibertsoa'* Jardunaldiak egin ziren Donostian; euskalgintzara eta euskal gizarte osora luzatutako deiari 400 eragile inguruk erantzun zioten eta bi egunez euskararen inguruko eztabaida mamitsuak egin ziren. Hain zuzen ere, bertatik jaso zuen behin behineko talde eragileak *Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua* sortzeko agindua. Urte bereko abenduaren 6an Durangon burutu zen Sortze Batzarra helburu horrekin.

KONTSEILUAREN INDARRA: GIZARTE ERAKUNDEAK

Guztira une honetan 54 elkarte dira Kontseiluko kideak, horietako zenbait talde askoren bilgune direnak.

Kontseiluko kideek, neurri handian, euskararen gizarte mugimendua ere osatzen dute. Osaera, eragimen eta antolaketa anitzekoak dira; kultur elkarte izaera dute gehienek, baina badira federazioak, fundazioak, elkarte profesioanalak, kooperatibak edota enpresak ere.

Anitz sektoretan dihardute elkarteok: irakaskuntzan, komunikazioan, lan-munduan, ikus-entzunezko zerbitzuetan, aisialdian, eta abarrean. 5.000 langile inguru dituzte guztira eta 100.000 bazkide baino gehiago ordezkatzen dituzte. Bistakoa da erakundeon indar soziala: ehunka mila herritarrekiko eragin zuzena baitute elkarteok. Bestalde, sektore ekonomiko garrantzitsua ere bada euskararen gizarte mugimendu hau, urtero-urtero 50.000 milioi pezetako fakturazioa eragiten baitu.

KONTSEILUAREN EGINKIZUNA

Kontseiluak euskarak garapen osoa izan dezan lan egingo du; beraz, euskararen normalizazio-prozesua areagotzea da *Kontseilua*ren eginkizun nagusia. Horregatik, barne- eta kanpo-indarrak euskararen aldeko prozesu zabalean inplikaraziz lan egingo du.

Euskalgintzaren muina da *Kontseilua*; bere indarrak artikulatzea eta euskararen gizarte mugimendua kohesionatzea lehentasunak dira *Kontseilua*rentzat. Bere baitako batasunetik zabalduko dio euskal gizarteari normalizaziorako beharrezkoa den elkarlan-dinamika.

Lankidetza-dinamika berria sustatuko du *Kontseiluak* euskararen egoeran jauzi kualitatiboa eragiteko. Euskal gizartearen eragile nagusiak euskararen normalizazioaren alde bultzatuko ditu akordio sozial eta politikoen bidez: euskararen normalizazioan aurrera egiteko borondatea eta konpromisoa azal dezaten eskatuko zaie eragileei. Elkarlan-bide honek ekarriko duen adostasunetik gizarteak berak adostu eta bere egingo duen Euskararen Plan Estrategikoa burutzeko urratsak egingo ditu *Kontseiluak*. Prozesu honen arrakasta gizartearen protagonismoan datza: normalizazioari zuzendutako neurriak ezarriko dituzten eragileei Planaren atonketan eta ondorengo urratsetan aktiboki esku hartzeko aukera emango baitzaie hasieratik beretik. Horrelako prozesuak sustatzen diharduten instituzioekin ere lankidetza-dinamika bera bilatuko du *Kontseiluak*.

KONTSEILUA GAUR

Une honetan egin beharreko erakundetze-urratsetan buru-belarri dihardu *Kontseiluak*. Jadanik hasiera eman zaie akordio soziala bideratu, plan estrategikoaren atondu eta barne-kohesiorako azterketa egiteari, Euskal Herrian zehar administrazio desberdinekin lankidetzan aritzeko erabakiarekin. Une honetan, bestalde, *Kontseilua* bere jendaurreko aurkezpena prestatzen ari da; udazkenean zehar eta ekitaldi desberdinen bidez, euskal gizarteari ezagutarazi nahi zaio euskararen normalizaziorako sortu den topagune hau.

Kontseiluak Pruden Sudupe du Lehendakari, *Ikastolen Elkartea*ren ordezkaria, Xabier Mendiguren Bereziartu Idazkari Nagusi, eta 11 kideko Zuzendaritza eta lantalde batekin bere eguneroko ekinean dihardu aurtengo maiatzean onarturiko Gestio Plana burutzen. Egoitza Andoainen du.

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA - NOR GARA?

ABEGI KULTUR ELKARTEA - Donostialdeko lau euskaltegiren elkartea

AEK - Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea (100 euskaltegi baino gehiago biltzen duena)

ANTZERKI TALDE AMATEURREN BILTZARRA - Antzerki-talde ez profesionalen elkartea

ARABAKO EUSKALTZALEEN ELKARGUNEA - Euskararen inguruko 14 elkarte biltzen duena

ARGIA - Euskarazko informazio orokorreko astekaria

ARRANO BELTZA EUSKAL TOKIA - Euskararen inguruko topagunea Donostian

ARTEZ - Euskararen normalizaziorako plangintzak, aholkularitza eta euskarriak eskaintzen dituen enpresa

AURTEN BAI FUNDAZIOA - Euskalduntzean eta ikas-materialen ekoizpenean diharduena

BAGARE EUSKAL TOKIA - Euskararen aldeko topagunea Gasteizen

BIGE - Bizkaiko Gurasoen Elkartea

EGAN - Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko literatur aldizkaria

EHE - Euskal Herrian Euskaraz. Euskararen defentsarako elkartea

EIZIE - Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien elkartea

EKB - Euskal Kulturaren Batzarrea. Euskararen sustapenerako eta normalizaziorako koordinakundea, 15 elkarte biltzen dituena

ELHUYAR - Euskara zientziaren arloan eta lan-munduan sustatzeko elkartea

ELKARLANEAN-ZABALTZEN - Argitaletxea eta banatzailea

EMUN - Enpresetan euskararen normalizaziorako planak garatzen dituen erakundea

EREIN - Argitaletxea

EUSENOR - Euskal Herriko entziklopedia orokorrerako elkartea

EUSKAL EDITOREEN ELKARTEA - Euskarazko argitalpenak promozionatzeko elkartea

EUSKAL HERRIKO BERTSOZALEEN ELKARTEA - Bertsolarien eta bertsozaleen elkartea

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA - Euskaraz idazten duten idazleen elkartea

EUSKAL KONFEDERAZIOA - Iparraldean euskararen normalizazioan lan egiten duten 40 elkarteren bilgunea

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA - Iparraldeko euskal kultur erakundea

EUSKALAN - Euskara lan-munduan sustatzeko elkartea

EUSKALDUNON EGUNKARIA - Euskarazko egunkaria

EUSKALTZAINDIA - Euskararen erret akademia

EUSKARAZ BIZITZEKO HITZARMENA - Euskara lan-munduan sustatzeko akordiora bildutakoen elkartea

EUSKO IKASKUNTZA - Euskal ikasketen elkartea

EUSKO IKASTOLA BATZA - 15 ikastola biltzen dituen elkartea

GAIAK - Argitaletxea

GEREDIAGA - Durangaldean Euskal Kultura sustatzeko erakundea

HIK HASI - Euskal heziketarako aldizkaria

IKA - Ikas eta Ari: Helduen euskalduntze eta alfabetatzerako zentroen elkartea

IKASTOLEN ELKARTEA - Ikastolen mugimenduak sortutako erakunde soziala

IKUSKIN - Telebistako ekoizleak

ILAZKI - Euskaltegia

JAKIN - Kultur gaiei buruzko aldizkaria

KARMEL - Euskal Herriko karmeldarren aldizkaria

KILI-KILI - Haurrentzako aldizkaria

LABAYRU IKASTEGIA - Euskaraz alfabetatzeko eta euskalduntzeko ikastegia, literatur eta etnografi ikerketarako zentroa, argitaletxea eta liburutegia

MAIZPIDE - Euskaltegi eta barnetegia

MENDEBALDE - Bizkaiera sustatzeko elkartea

OINARRIAK - Nafarroan euskararen normalizazioan dihardutuen 15 erakundetako elkartea

ORIO PRODUKZIOAK - Zine eta telebistako ekoizleak

SORTZEN - Euskal Eskola Publiko berriaren aldeko mugimendua

TINKO - Euskal Zinema Aretoetara. Euskara zinemaren arloan normalizatzeko erakundea

TOPAGUNEA - Euskara Elkarte eta Herri Aldizkarien Topagunea. Euskara sustatzeko 32 herri erakunderen eta 28 herri aldizkariren elkartea

TTARTALO - Argitaletxea

UDAL EUSKALTEGIETAKO LANGILEAK - EAEko udal euskaltegietako langileen elkartea

UEMA - Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

UEU - Udako Euskal Unibertsitatea. Euskal Unibertsitatearen sorrera ahalbidetzeko eta bideratzeko erakundea

URRATS - Euskaltegia

UZEI - Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea. Euskal terminologia eta lexikografia zentroa



KONTSEILUAREN HELBURU ETA EGITASMOEI BURUZKO ARGIBIDEAK


Euskararen normaluntza da helburua. Euskara Euskal Herri osoan erabat normalizatua izango den hizkuntza izatea da guztion helburua. Normalkuntza ezinbestekoa da Euskal Herrian euskaraz bizi nahi dugulako eta horretarako eta euskara herri honen berezko hizkuntza izanik, euskararen normalizazioa Euskal Herriari eta euskal herritarrei zor zaigun zerbait da.

Euskararen normakuntza, doan bezala ez doa ondo. Oraindik orain, datuek esaten digute Iparraldean galtzen ari dela, Nafarroan ez galdu eta ez irabazi ari garela eta Euskal Autonomia Erkidegoan aurrea joan arren abiaddura motelegia dela, errtimo honetan urte gehiegibehar dugula (100-200 urte barru oraindik normalizazioa erdietsi gabe egon gaitezke).

Itxaropen osoa dugu, normalkuntza lortuko dugu. Ez gaude etsipenak jota, lan ugari egin da orain arte (hemen herri bakoitzeko lana eta emaitzak jar litezke mahai gainean, Euskal Herrikoekin batera) eta lanean ari gara aurrera egiteko, egunero egiten dugu urrtas berri bat eta beti aurrera. Prozesua azkartu egin behar dugu eta horretarako dinamika berria behar dugu.

Dinamika berria Euskararen Plan Estrategikoak ekarriko du. Askotan entzun dugu gure ekonomiak aurrera egiteko plan estrategiko hau edo bestea behar duela. Euskarak ere, aurrera egiteko Plan Estrategikoa behar du. Euskal Herri osoa lurraldez eta sektorez hartuko duen plan estrategikoa diseinatu behar da eta gero martxan jarri. Plan Estrategiko hau bultzatzea Kontseiluak hartu du bere gain, eta bere ildo nagusi den barne-kohesioa areagotzearren, euskalgintzako indarrak bildu eta hauen artean sinergiak lortzea bereziki bilatuko du.

Plan Estrategikoa ezin du bakarrik euskalgintzak egin, sektore guztien parte hartzea lortu behar da, ahalik eta jende gehien inplikatuz. Plana egingo bada, martxan jarriko dena izango da, ez idatzita oso polita izango dena. Martxan jarriko den plana egiteko, derrigorrezkoa da gero hori gauzatu behar dutenek parte hartzea zuzenean, diseinuan parte hartuko duenak bere mailakoa egingo du eta errazago izango da hori martxan jartzea. Azken batean plana ehundaka edo milaka eragile eta ordezkarien artean adostutako zerbait izan dadin lortu behar dugu.





Euskal Herrian gizarte osoa inplikatuko duen dinamika behar dugu plana egin eta martxan jartzeko. Euskal Herrian gehiengoa euskararen alde dago baina ez dago nahikoa girorik planteatzen ari garen dinamika hau bihar bertan martxan jartzeko. Horixe da lortu nahi duguna, giroa Plan Estrategikoan partehartzaile izateko: denok dugu zeregina, guk ere egin ditzakegu urrats berriak eta hori egiteari ekingo diogu. Giro hori sortzeko Akordio Soziala lortu behar dugu.

Akordio Sozialak babesa emango dio Planari eta sektore guztiak inplikatzea ekarriko du. Une honetan gizarteko eragile nagusi batzuekin akordioa lortu nahi da. Akordio honek euskarak aurrera egiteko behar duen dinamika berri horri eusteko tresna izan nahi du. Kontseiluarekin bat egingo dute Plan Estrategikoaren beharra zabalduz, horrean aldeko apostua eginaz eta dinamika horretan parte hartuko dutela esanaz.

Euskal gizarteak Akordio Soziala eragin behar du. Euskararen aldekoa den masa soziala Planaren dinamikan sar dadin oso inportantea izango da eragile nagusiek horren aldeko jarrera hartzea. Baina hauek jarrera hau har dezaten euskal gizartea dinamika berriaren alde agertzea oso inportantea da, euskal gizartearen agerpen zabalak zuzenean eragingo baitu eragile sozialak dinamika berriari euts diezaiote eta indar politikoak ere hona etor daitezen.

IRAKASKUNTZA ETA HIZKUNTZ NORMALIZAZIOA. ESKOLAREN ERAGINA ETA MUGAK EUSKARAREN BERRESKURAPENEAN.

Hizkuntz normalizazio prozesuetan atentzio berezia jarri izan da beti irakaskuntzan. Gure kasuan ere, euskara berreskuratzeko ahalegin handienak, dudarik gabe, irakaskuntzan egin dira. Hare gehiago, pentsatu izan da, askotan, eskolaren bidez berreskuratu zitekeela minorizatuta dagoen hizkuntza. Eta ez dira kontuan hartu eskolaz kanpoko beste faktoreak: hizkuntzaren balorazio eta erabilpen soziala. Hizkuntzaren balorazio eta erabilpen soziala ziurtatzeko beharrezkoa izango da beste errepeodukzio-mekanismoak funtzionatzea: komunikabideak, gizarte-zerbitzuak, lan-mundua,...

Eskolak bakarrik, ez du sekula gizarte mailako hizkuntzen indar-korrelazioa aldatu. Esan dugun bezala, hizkuntza baten berreskurapena ez dagokio hezkuntza sistemari bakarrik. Baina egia da ere, normalizaziorako ezinbetekoak direla eskolan garatzen diren erabilera eta funtzioak. Hizkuntza baten berreskuratze prozesuan, eskolak bere funtzioa bete dezake: hizkuntzaren ezagupen-maila bat eskaintzea. Alde batetik, txikitatik euskaldunak diren umeei hizkuntza lantzeko aukera emanez eta bestetik, guraso erdaldunen seme-alabei hizkuntza ia konturatu gabe ikasteko aukera emanez (zentzu honetan, hau da, eskolak euskal komunitaterako sarrera errezten duen heinean, elementu integratzailea izango litzateke). Baina, hori bai, ahaztu gabe ezagutza mailan lortu daitekeena baldintzatuta dagoela euskararen balorazio eta erabilera sozialagatik.

Euskal Herrian orain dela gutxirarte eskolak faktore erdalduntzaile gisa funtzionatu izan badu izugarrizko kaltea eginez, azken urte hauetan, ikastolen mugimendua sortu zenetik, elementu euskalduntzaile garrantzitsua bilakatu da. Ikastolen esperientzia beste eskoletara zabaldu da, eta B eta D ereduetan gero eta ume gehiago matrikulatzen dira lehen mailetan. Dena dela, A ereduak oraindik indar handia dauka, batez ere, goi mailetan, eta oraintxu atera diren Euskal Eskola Publikoaren legea eta Irakaslegoaren Hizkuntza Eskakizunen Dekretua atzerapausua suposatu dute euskararen berreskurapen prozesurako.

Elebitasuna eta Hezkuntza.

1. gaia: Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren azterketa.

Hizkuntza gertaera sozial bat da. Horregaitik aztertuko dugu soziolinguistika. Soziolinguistika zientzia bat da eta interesatzen zaiona "hizkuntz erabilera" da. Hau egiten du: erabilera aztertu eta azaldu. Hitz egingo dugu hizkuntzaren erabilera sozialaz, ez dugu aztertuko erabilera partikularra.

Hizkuntza iraungo du erabiltzen den bitartean, ez daukate bizitza propiorik.

Hizkuntz funtzioak

Sailkapen ezberdinak daude. Hau da adibidez Txepetx-en sailkapena: - funtzio profesionala lanerako.
- funtzio lokala.
- funtzio nazionala.
- funtzio internazionala.
- identitate funtzioa.
- funtzio koloniala.

Hizkuntza bat normalizatua dagoenean, gizartearen behar guztiei erantzuten dio: ikaste-hizkuntza, administrazio hizkuntza, komunikabide hizkuntza, etab.

. Lexikoa behin eta berriro sortzen joan behar da. Lehen erabiltzen zen hiztegia gaur egun ez dugu erabiltzen eta aldaketak egon behar dira. Moldatu egin behar da eta erabilgarria izan behar da bestela desagertuko da. Euskera gutxitua da, hau da, zenbait funtzio betetzen dituen hizkuntzat esango digu zer kalifikatibo eman.

Erabilera eremuak:

Ad: Etxea, familia, eskola, lantokia ... hizkuntzaren erabilera eremuak dira. Hizkuntzaren espazioak dira, zeina irabazi edo galtzen joaten da. Ez da espazio fisiko huntza, hau da, eskolaz hitzegitean ez dugu esan nahi edifizio bat dela, bertan edo beste toki batean gai horietarako erabiltzen diren hizkuntzak baizik. Eskola-edifizioaren barruan beste eremu ere badaude. Hizkuntza erabiliaren une edo espazioaren multzoa da. Hizkuntza bat eremu guztiak okupatu behar ditu, eta bestela irabasten joan.

Erabilera arauak

Ez da arbitrarioa, ez da fortuitoa, ezta kotikoa ere. Arau batzuk jarraitu behar dira hizkuntza erabiltzen denean eta horregaitik azaldu daitezke, erregulatuta daudelako. Legeak esplizituak dira (idatziak daude). Beste batzuk normalak dira edo behintzat normalak direla iruditzen zaizkigu. Arauak inpertsona-lak balira bezela hartzen ditugu. Beharrezkoak dira konbiertzia-rako, baina aldagarriak dira sozialak direlako.

Hizkuntz erabilera

Badaude ohitura eta arau batzuk hizkuntzaren erabileran hizkuntz mota bat edo bestea aukeratzeko. Arau sozialak direnez alda-tu daitezke.

Hizkuntzaren erreprodukzio soziala: hizkuntz transmizioa.

Hizkuntza gertaera sozial bat da eta behar du mekanismoa (janari behar ditu) erreprodukzioa zurtatzeko. Mekanismo batzuk:

- Familiaren garrantzia azpimarratu da.
- Eskola
- komunikabide sozialak

- Gazte zerbitzuak
- kalea
- lan mundua.

Komunikabide sozialak etxean sartzen dira T.V., irratia... Ereduak bihurtzen dira.

Transmisio bide bi:

+ naturala: etxean, auzoan, gertuko komunitatean gertatzen dena.
+ kulturala: lantzen dugunean etxetik (eskola).

* NORK ERABILTZEN DU HIZKUNTZA?

Hiztuna: hizkuntza erabiltzen duena.

Hiztun mota ezberdinak (Txepetx):

- Hiztunek hizkuntzaz dute ezagueraren arabera.

- Irakaskuntza naturala egin dutena, hizkuntzaren ezaguera jakin bat dutenak. Ad. umeak, analfabetoak.

- Irakaskuntza kulturala (irakaskuntza naturala + kulturala egin dutenak): euskaldun zaharrak + alfabetatuak.

- Irakaskuntza kulturala: eskolan ikasi duten hiztunak (euskaldun berriak).

- Ikaskuntza kulturala + naturala egiten dutenak, hau da, hizkuntza barneratzen dutenak eta hizkuntza horretan pentsatu eta bizitza lotzen dutenak. Ad: euskaldun berriak (euskaraz bizi direnak = "natibizatuak").

- "Hiztun osoak": Hizkuntzaren ikasketa osoa egin dutenak.

Hizkuntza bat konpartitzen duten hiztunek hizkuntz komunitatea sortzen edo osatzen dute.

HIZKUNTZ KOMUNITATEA.

Hizkuntza erabiltzen duten hiztunek, hizkuntz komunitatea osatzen dute. Hizkuntzaren atzetik beti hizkuntz komunitatea dago. Hizkuntza baten heriotzaz hitzegiten dugunean talde baten desintegrazioaz hitzegiten dugu, gauza bera esaten dugu hizkuntza normalizatua dagoenean, talde bat elkartzen deneon edo konpaktatzen delako.


Hizkuntz komunitatea, komunitate nazionalarekin konparatzen da. Edozein nazionalismo elementu diferentzaile edo identifikatzaileak ditu, diferentzi horiek (markatu behar direnak) eta desberdintasunak egin daitezke: ezaugarri fisikoak izan daitezke. Batzutan ere erabili izan da arraza elementu diferentzaile bezala. Badago beste modu bat, hau da, ezaugarri kulturalak: erlijioa, hizkuntza...

Mota askotako elementuak erabili dira historian zehar diferentzia hori markatzeko: fisikoak, ...

Ad: Irlandaren elementu diferentzailea erlijioa da. Euskal nazionalismoa ez du bakarrik hizkuntza erabili elementu bezala, arraza ere erabili da historian zehar.

Hizkuntza ezagutzarekin ez da nahikoa, konpartitu eta erabili behar da hizkuntz komunitatea. Hizkuntz komunitatea lurraldea eta beste elementu batzuk ere kontutan izan behar dira, historia adibidez, hizkuntz komunitatea berezko bat osatzeko.

Talde sozialaren egitura, hau da, hizkuntz komunitateoren antolaketa eta egitura: Txepetx-en "teoria"



Hiztun mota hauek talde soziolinguistiko bat osatuko du. Talde bakoitza diagrama honetan kokatzen du.

1 - Hiztun osoak

2 - Hizkuntza ikastolan ikasi duena eta barneratu duena.

Hizkuntzarentzat inportanteenak dira. Nukleoa da.

3- Etxetik jaso dituzten hizkuntza modu naturalean, baina eskolan ez dute landu.

4- Ikastolan ikasten hizkuntzara hurbildu direnak.

Bi lehenengoen erreferentzia behar dira beste biak existitzeko. Zer esan nahi du erdian agertzea? Talde hauek, talde bezala, hizkuntza bezala euren bizitza hizkuntzaz oso egiten dute. Hizkuntza normalizatua ez dagoenean taldeak aldatzen dira, ez du gunerik. Hizkuntzarentzat, nahiz garrantzearentzat taldeak oso garrantzitsuak dira. Talde hauek hizkuntzarentzat duten garrantzia artean eta duten garrantzia sozialaren artean ~~ezin~~ izan dute kontradiktoriorik eduki.

Gunea existitzen bada beste taldeak existitzeko aukera ematen dio eta horrela gunera iristeko aukera ere. Gunea existitu arren hizkuntza ez bada erabiltzen gunea ez du indarrik. Pisu sozial-politiko bat egon behar da komunitatea osatua egoteko eta batez ere harremana edukitzea beraien artean gunea osatzeko.

2. HIZKUNTZ ANISTASUNA HIZKUNTZAK BIZI DITUZTEN EGOERA EZBERDINAK

2.1 Hizkuntz anistasuna

4.000 edo hizkuntz daude munduan. Batzuk esaten dute 6.000 edo 7.000 egongo direla. Baita ere 2.000 edo desagertuko direla. Oso gutxi dira ESTATUAK dituenak. Gehienak estaturik gabeko hizkuntzak dira. Anistasun maila ez da berdin estatu guztietan. Ad: Ozeanian, Papua Guinea (3.500.000 biztanle eta 1000 hizkuntz berba egiten dira). Oso gutxi daude (estatu) elebakardunak (Islandia eta Albania Portugal), besteak elebistunak dira. Bada estatu elebidunak baina hizkuntz bakar bat erabiltzen da, hizkuntz ofizial bat bakarrik daukate elebitasun estatala salbuespen

bat da. Homogeneotasun dauden estatuak oso gutxi daude (Portugal, Islandia eta Albania). Hizkuntz politika + lege bat izan behar da, Europako errealitatea soluzionatzeko, europan eleaniztasun asko dagoelako.

2.2 Hizkuntzaren arteko ezberdintasunak

Batzuetan hiztun kopurua jartzen da eta hizkuntza maioritarioa deitzen da (hiztun asko), hiztun gutxi daukatenari hizkuntza minoritarioa deitzen dira. Hizkuntz funtzioak, alde kualitatiboa: - hizkuntz normalizatua
- " minorizatua (gutxitua).

Hizkuntz maioritarioz hitzegiten dugunean ez du esan nahi normalizatuta dagoela, aldiz minoritarioa izan daiteke eta normalizatua izan.

Hizkuntza	minorizatu	normalizatua
minoritario	Laponiera	Albaniera
maioritarioa		Ingelesa

2.3 Hizkuntza guztiak intrinsikoki berdinak.

Hizkuntza guztiak gai dira haien hizkuntz komunitatean funtzionamendu eta premia guztiei erantzuteko, denak molda daiteke. Hizkuntzak badutela ahalmena egoera ezberdinetara moldatzeko. Hizkuntza moldatu daiteke. Ez dago hizkuntzik, besteak baino hobeagoa denik, historian zehar eduki dituen baldintzak hobeagoak izan dira bakarrik. Badaude hizkuntz zaharrak (TXINOA) gaur egunean erabiltzen dena. Hizkuntza badauka gai egokitzeko, modernizatzeko. Arazoa ez da hizkuntzarena ez modernizatzeko baizik eta jendea ez daki egokitzea. Hizkuntza ahalmena du moldatzeko.
Hebreoa: III mendean → literatura XIX mendean → normalizatuta ("lengua oficial").

Hizkuntzaren alde praktikoa azpimarratzen da. Alde praktikoa izanez gero abantaila gehiago izaten du Internazionala siertzen da.

2.4 Hizkuntzek bizi dituzten egoera ezberdinak.

Txepek-ek esaten du. Hizkuntza honako egoera batean egon daiteke (Historiako une jakin batean) ⇒ Gaur egun.

1. Transmizio naturala eta kulturala ziurtatuta. Ingelesa, Gaztelania Alemana, frantzesa.

2. Naturalki transmititu baina ez kulturalki. Bere-berea.

3. kulturalki transmititu baina naturalki ez. Latina.


4. Ez da transmititzen. Iberiarra.

Egoera aldatu daiteke. Garai batean latina hizkuntza hitzegiten zen eta oso zabaldu zen, naturalki eta kulturalki. Baina gero erligio, filosofia eta zientzietarako bakarrik erabiltzen zen, kulturalki soilik transmitituz. Denak transmititu daitele kulturalki eta normaleon (naturalki) hau da, normalizatuta egotea.

Transmizio naturala (Euskeran) ez dago ziurtatuta. Mendeetan zehar familia izan da metodo erabilgarriena transmizioa posible egiteko.

1994 an. Sideko Elkarteok aztertu zuten nola transmititzen zen Euskera familia barruan. Azken 20 urtean gehiago transmititzen da euskera lehen baino.

Ezagutzen duten pertsonak ez dute transmititzen bere seme-alabei. Eragina du gune soziala: Gune erdal batean bizi edo gune euskaldun batean bizi. Azo batietan aukera handiagoak daude hizkuntza nabilteko edo debekatuta egon ⇒ Belaunaldiaren eragina (egoeraz).



Gurasoen tipologia	Gune euskaldunean (%80 – %100)	Gune erdaldunean (%0 – %20)
Biak euskaldunak	%90	%67
Bakarra euskalduna.	%50	%8

Hizkuntza normalizatuetako adierazgarri nagusienetako bat, transmizio naturala jasotako hiztunen pisua da.

Transmizioa kulturalki dagokionez, gaur egun, ezin da esan ziurtatuta dagoenik; gehien funtzionatzen duen mekanismoa eskola da. Euskeraren egoera ulertzeko aipatu behar dugu hizkuntz ukipena, kontzeptu soziolinguistiko bat da. Euskal Herrian hizkuntz ukipena gertatzen da, talde linguistiko bi kontaktuan daude lurralde berean, hau da HIZKUNTZ UKIPENA. Euskal Herrian dauden hizkuntzak:

- Iparraldean Frantsesa eta Euskera.
- Hegoaldean Euskera eta Gaztelera.

Hizkuntz ukipena ez da inoiz ona izaten, ez da egoera lasaia. Ukipenean dagoen hizkuntza bakoitzak berorentzako erreibindikatzen duelako berarentzako guneak, espazioak eta erabilera mugak. Hizkuntza bakoitza erabili nahi ditu funtzio gehienetak. Hizkuntz ukipen egoeraren ondorioz sortzen da elebitasun soziala. Elebitasuna ez du itxulpen bakarra, adierazi ezberdinak ditu (jakintza arlo ezberdinak eta azalpena desberdinak interes ezberdinengotik). ⇒ GALDERAK: "ELEBITASUNAREN ZENBAIT ALDERDI". Errealitate bat da.